



KRESALA

Jon Kortaberria Lopetegi

Beasain

Ametsetan, ametsetan nenbilen
neure desioen atzetik,
umeen antzera, algaren artean,
noizbait izan nahiko nuena
irudikatzen nuen

Askatasunaren itsaso zabalean
libre sentitzen nintzen
arimari kaio zuriekin batera
hegan egiten utziz,
irudimenaren ur gardenetan
murgiltzen nintzen
bertako izaki miresgarriak
ezagutu nahian,
egun batean, ezustean,
dena ilun bilakatu zen arte

Bila, bila ibili nintzen
argiaren lapurraren atzetik,
ehiza txakurren antzera, leratsu,
erantzunen egarriz





Halako batean sugar
bat aurkitu nuen ezerezean.
Itsu, jatorri ezezaguneko
txinpartei hurbildu nintzaien
hainbeste beldur ematen zidan
iluntasunari aurre egingo ziolako ustean

Babesa, babesa sentitu nuen
gar horien inguruan,
alderraien antzera, basamortuan,
gordeleku bat aurkitu nuelako

Suak erantzunak eman zizkidan eta
men egin nien bere irakaskuntzei,
apurka-apurka, konturatu gabe
itsaso hura ahaztu arte,
amesteari utzi arte

Ustez behar nuena, nahi nuena eman zidan
tarteetan galderarik egin gabe,
fededunen antzera, erabat otzan
bere esklabo leial bilakatu nintzen

Denboraren poderioz,
hasieran beroa zirudien sugarra
hotza zela ohartu nintzen,
azkenean jabetu nintzen bera zela
itsasoa beltz bilakatu zidan
argi lapurra,
kaioken batera neure arima
kaiolan preso zuena.





Ulertu nuen ozeano argira
itzultzeko era bakarra,
gar horiek alde batera utziz
berriz amesten hasia zela
hainbeste beldur eragiten zidaten
itzalen artean murgilduz

Orain ametsetan, ametsetan nabil berriz
iluntasunaren beldurrik gabe
neure kimeren atzetik.
Iruzurrezko su hori,
aspaldi ito zuen kresalak.

Nicolas Bøurbaki

